

Antena

Antenaren luzera seinalearen maiztasunaren araberakoa da; hain zuzen ere, uhin-luzeraren balio bera edo horren zatiki erabilgarriaren balio bera izan behar du. Horregatik, adibidez, irrati-uhinak hartzeko antenak telefonia mugikorreko antenak baino luzeagoak dira. Luzeraz gain, beste faktore batzuk ere kontuan hartzen dira antenak sailkatzeko.

Norabidea kontuan hartuz gero, bi eratako antenak aurki daitezke: batetik, *antena direkzionalak*, norabidearen arabera energia gehiagoko edo gutxiagoko uhin elektromagnetikoak igortzen dituztenak eta seinaleak ere hein handiagoan edo txikiagoan hartzen dituztenak; bestetik, *norabide orotako antenak*, norabide guztietan energia bereko uhinak igortzen dituztenak eta norabide guztietatik seinaleak hein berean hartzen dituztenak.

Osagai-kopuruaren arabera, berriz, bi eratakoak izan daitezke, oro har: *polo bakarreko antenak*, osagai aktibo bakarra dutenak, eta *bi poloko antenak*, seinalea bi osagaien bidez jasotzen dutenak. Gaur egun, gainera, beste antena-mota bat ere erabiltzen da: *MIMO antena* (Multiple Input Multiple Output) edo *sarrera anitzeko eta irteera anitzeko antenak*; azken horiek hainbat antena elkartuta sortzen dira, eta egitura horrek antenen errendimendua handitzea du helburu.

Irabaziarri dagokionez, bi antena-mota bereizi ohi dira: *irabazi handiko antena*, norabide jakin bateko uhin elektromagnetikoak hartzeko gaitasun handia duena, eta *irabazi txikiko antena*, errendimendu txikiagoa duena.

Azkenik, uhin elektromagnetikoa zein norabidetan polarizatzen duten kontuan hartuz gero, *antena bertikalak*, *horizontalak*, *eliptikoak* eta *zirkularrak* daude.

Antena-mota horiekin guztiekin batera, *antena parabolikoak* ere aipatu behar dira; parabola-formari esker, gainazalera heltzen diren seinale ahulak fokuko hargailu-igorgailuan kontzentratzen dituzte, eta, hartara, sistemaren errendimendua areagotzen dute.

Amaitzeko, esan beharra dago antenak sailkatzerakoan kontuan hartu beharreko beste faktore batzuk ere badirela, hala nola maiztasuna, potentzia, etab.